242 zkia

txi kitto!

2026ko urria



BURUA BUELTAKA **IRUDIMENA** DANTZAN

Aurkibidea

TXISTEAK 3

IKASLEEKIN BERRIKETAN 4

IKASTETXEETAKO BERRIAK 6

BANAKIXAN BANAKIXALA 8

GURE NAGUSIEKIN BERBETAN 9

SUKAL-SALTSAN 10

DENBORAPASAK 11

LEHIAKETA 13

ZER IRAKURRI BITXIKERIAK 14

IPUINA 15

ZU BAI MARGOLARI 16

eta kitto!
euskara elkartea

Argitaratzailea
"...eta kitto!" Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartea.
20600 Eibar
Tel: 943 206776

Erredakzio kontseilua
Maider Aranberri,
Ana Aizpurua, Ekhi Belar,
Irati Alvarez, Irune Jaio eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa
Naiara Esnaola

Erredakzioa
Irati Alvarez eta
Ekhi Belar

Diseinua
Irune Jaio

Azaleko argazkia
Irati Alvarez

Copyright-a
Txikitto!

Lege-gordailua
SS-1111/96

EIBAR
Udala | Ayuntamiento

GIPUZKOA
Foru Aldundia
Babestutako hedabidea

- Bi tomate kalean doaz eta bietako bat kotxe batek harrapatzen du. Zer esaten dio besteak?
- Ketchup!

- Ama, ama! Eskolan despistatua deitzen didate!!
- Aizu, joan zaitez zure amarengana!

Kaletik bi pertsona doaz eta erdikoa jausten da.

- Nola deitzen zaio superbotereak dituen ardiari?
- Super-ardia!



- NOLA ESATEN DA TXAKURRA INGELESEZ?
- DOG.
- ETA "PERRITO CALIENTE"
- DOG-ITO BERO.



- Zergatik dago liburua beti nekatuta?
- Orrialde asko dituelako.

- Zer esaten dio mahats batek mahaspasa bati?
- Zahartu egin zara, eh?



- Jontxu, nola idazten da telefonoa?
- Ba Entzuten den bezala!

JANARI-NAHASKETA ARRAROAK, SUPERBOTEREAK ETA BESTE HAMAIKA KONTU



TESTUA ETA ARGAZKIAK: **IRATI ALVAREZ**

Urkizu Herri Eskolako ikasleek galdera bitxi eta dibertigarriei erantzun diete Txikitto! aldizkarian. Maila bakoitzeko ikasle bana elkartu dugu, eta askotariko erantzunak eman dituzte: janari-nahasketa arraroenetatik hasi eta aukeratuko lituzketen superbotereetaraino. Batzuek ikusezin bihurtu nahi dute, beste batzuek hegan egin, eta bada maskota hiztun batekin zer egin ez dakiena ere. Ez galdu!

Zein da probatu duzun janari-nahasketarik arraroena?

Yosra: Sagarra ozpinarekin.
Abdelmoghit: Olioa, ozpina eta gatza nahastuta.
Safa: Jogurta galletarekin. Oso ona dago!
Lamiss: Zukua eta izozkia.
Izaskun: Sagarra limoiarekin.
Ehtesham: Brokolia olibekin. Oso txarra dago!

EHTESHAM



IZASKUN



LAMISS



Egun batez ikusezin izango bazina, zer egingo zenuke?
Ehtesham: Eskolatik ihes egingo nuke!
Abdelmoghit: Leku garestietan sartuko nintzateke.
Lamiss: Txontako fabriketan sartuko nintzateke. Askotan igarotzen naiz albotik, eta oso beldurgarriak dira!
Yosra: Nik bidaiatu egingo nuke.
Izaskun: Ni ere autobusetan sartuko nintzateke.
Safa: Ba, nik nire neba-arrebak beldurtuko nituzke!

Zure maskotak hitz egingo balu, zer galdetuko zenioke?
Ehtesham: Etxetik joango nintzateke. Beldurra emango lidake!
Lamiss: Bere izena, zein den bere janari gustukoena eta zenbat urte dituen.
Yosra: Nora joan nahiko lukeen.
Safa: Zer fruta jaten duen.
Izaskun: Zer egitea gustatzen zaion.
Abdelmoghit: Zeintzuk diren bere kirol eta janari gustukoenak.

Zein da inoiz egin duzun tontakeriarik handiena?
Safa: Nik ez dut tontakeriarik egiten! Amak esaten dit tontakeriarik egiten badut ez didala ezer ere erosiko!
Yosra: Nik ere ez!
Ehtesham: Nire arreba nagusiari molestatzea.
Lamiss: Nire ohetik salto egitea.
Izaskun: Nire amatxori parkean tontakeriak erakustea.
Abdelmoghit: Nire anaiari gauzak kendu eta ezkutatzea.

Superbotere bat aukeratu beharko bazenu, zein aukeratuko zenuke?
Ehtesham: Indarra izan nahiko nuke.
Lamiss: Hegan egitea!
Izaskun: Nik ere bai.
Yosra: Nik telekinesia.
Safa: Indarra.
Abdelmoghit: Ikusezin bihurtu ahal izatea.

SAFA



YOSRA



ABDELMOGHIT



ALDATZE

Aldatzeko ikasleek, urtero bezala ikasturtea gogotsu hasteko, kurtso hasierako txangoaz gozatu zuten. HH4 urteko gelatik LH6rainoko ikasleak Arratera egun pasa joan ziren. Tirolinan, zelaian, gurutzean, laberintoetan... zoragarri pasatu zuten! Egun ederra igaro zuten lagun artean.



AMAÑA

Kaixo lagunok! Kurtso hasierari ekin diogu! Gogotsu hasi dugu ikasturtea, lagun berriak ezagutu ditugu eta zaharrak agurtu. Horretarako Arratera igo gara egunpasa. Astelehen bikaina izan dugu eta primeran pasatu dugu!



ITURBURU



Iturburuko bigarren mailakoak, Arritxulon egon ginen. Bero handia egin zuen arren, mendi buelta, eskalada eta talde jolasak egin genituen. Disko festan dena eman ondoren ikasle baten urtebetetzea ospatu genuen lo egin aurretik. Penaz utzi genuen Arritxulo, baina pozik elkartu ginen berriz etxekoekin.

ARRATEKO ANDRA MARI

Ikasturte hasierarekin batera nobedade handi batekin gatoz eta zuekin partekatu nahi dugu. Gure jolastokiak inklusiboagoak, dinamikoagoak eta berdeagoak izatea helburu izanda, berrikuntza lanekin hasi gara. Dagoeneko bi gune bukatuta daude eta ikasleak eskalatzeko, ezkutatzeko, lurra manipulatzeko eta ekintza anitz egiteko aukera dute.



SAN ANDRES



6. mailako ikasleok Irrisarriland bisitatu dugu. 3 egunez, hainbat ekintza izan ditugu. Gutariko batzuen ustez, tirolinak izan dira ekintzarik dibertigarriena; beste batzuen iritziz, berriz, arborismoa, eta beste batzuendako (batez ere gurekin etorri diren irakasleendako) gaueko diskoteka izan da momenturik onena.

URKIZU

Irailean, gure eskolako bigarren eta hirugarren zikloko ikasleok beisbol ikastaroa izan genuen. Gipuzkoako beisbol eta softball federazioko presidentea den Pepe Simancas etorri zen gurera kirol honi buruzko bi saio eskaintzera. Primeran pasatu genuen!



LA SALLE



Udako abenturak kontatu ondoren gela, maila eta lagun berriak ezagutzen pasa dugu iraila. LHko 1., 2., 5. eta 6. mailetako ikasleak Arratera txangoa egin genuen, bertan egun zoragarria pasatzeko elkarrekin jolasean. 3., 4. eta 6. mailetako artistek Donostiako Zinemaldian pelikula bat ikusi eta bertako alfonbra gorria zapaltzeko aukera ere izan zuten.



ARIES

martxoak 21
apirilak 20

Energia handia izango duzu eta jolasteko gogoa ez zaizu faltako. Egun euritsuetan ere, etxean plan dibertigarriak asmatzeko gai izango zara. Ea zer abentura berri bururatzen zaizun!



TAURUS

apirilak 21
maiatzak 20

Udazkeneko arratsalde lasaiak gustuko izango dituzu. Manta baten azpian irakurtzea edo merienda goxo batez gozatzea plan bikainak izango dira. Baina atera kalera ere, hosto koloretsuak ikustera!



GEMINI

maiatzak 21
ekainak 20

Kontatzeko istorio pila bat izango dituzu. Lagunekin barre egingo duzu, eta agian txiste berri bat ikasiko duzu. Saiatu besteei ere hitz egiteko aukera ematen!



CANCER

ekainak 21
uztailak 20

Lagun bati laguntzeko aukera izango duzu, eta horrek oso pozik sentiaraziko zaitu. Egun euritsu batean etxean egotea gustatuko zaizu, baina lagunekin jolasteko tartea ere bilatu.



LEO

uztailak 21
abuztuak 20


Zure umore onak ingurukoak alaituko ditu. Jolasean ideia berriak proposatuko dituzu, eta besteek gustura hartuko dituzte. Gogoratu, ordea, denon ideiek merezi dutela aukera bat!



VIRGO

abuztuak 21
irailak 20

Eskolako lanak antolatzeko eta gauzak txukun edukitzeko hilabete aproposa izango da. Hala ere, ez saiatu dena perfektu egiten. Batzuetan, akatsetatik ikastea da dibertigarriena!



LIBRA

irailak 21
urriak 20

Lagunekin plan politak egiteko gogoa izango duzu. Desadostasun txikiren bat sortzen bada, hitz eginez konponduko duzu. Zure inguruan giro ona sortzeko gaitasun handia duzu.



SCORPIO

urriak 21
azaroak 20

Zure jakin-mina piztuta egongo da eta misterioak argitzea gustatuko zaizu. Liburu batean, jolas batean edo naturan aurkituko duzu zerbait interesgarria. Begiak zabalik izan!



SAGITARIO

azaroak 21
abenduak 20

Abenturak gustuko dituzu, eta udazkenak aukera politak ekarriko dizkizu. Paseo batean hosto bereziak aurki ditzakezu edo lagunekin joko berri bat asmatu. Ez duzu urrutira joan behar ondo pasatzeko!



CAPRICORNIUS

abenduak 21
urtarrilak 20

Ahaleginduz gero, eskolako lanetan aurrera egingo duzu. Baina ez ahaztu jolasteko eta atseden hartzeko denbora ere behar duzula. Antolatu zure eguna eta gozatu une bakoitzaz.



AQUARIUS

urtarrilak 21
otsailak 20

Ideia bitxi eta originalak izango dituzu buruan. Eskulan bat, marrazki bat edo joko berri bat asmatzeko une egokia da. Partekatu zure ideiak, agian lagunek bat egingo dute zurekin!



PISCIS

otsailak 21
martxoak 20

Irudimena sutan izango duzu! Ipuinak asmatzea, marraztea edo zure ametsetan pentsatzea gustatuko zaizu. Gainera, lagun baten eguna alaitzeko hitz polit batzuk izango dituzu prest.



TESTUA ETA ARGAZKIA: **EKHI BELAR**

Ander eta Jose Manuel Iriondo dira ikasturte honetako gure lehen elkarrizketatuak. Ilobak 9 urte ditu eta aitxitxak 73, baina adinean alde nabarmena badago ere, oso harreman estua dute. Ea bikoteak zer kontatzen digun!

Zein da zuen ogitarteko gustokoena?
ANDER: Txokolatezkoa.
J. MANUEL: Urdaiazpikoarekin eta tomatearekin.

Eta platerrean jateko, zer nahiago duzue?
ANDER: Hanburgesa, lasagna edo sushia.
J. MANUEL: Giroaren arabera. Ez da gauza bera uda ala negua izan. Udan entsaladak jaten ditut gustura. Bestela, etxean, porru-patatak jaten ditut gustura.

Zein musika entzutea gustatzen zaizue?
J. MANUEL: Ez dut bereziki estilo gustukorik. Lan egiten nuenean irratia jartzen nuen, Gaztea, eta jartzen zutena entzuten nuen.
ANDER: Ez dut musika asko entzuten, baina esaterako, rock-a aukeratuko dut. Batzuetan autoan entzuten dut.

Zein da zure musikaririk edo talderik gustukoena?
ANDER: Ez daukat faboritorik, baina ezagutzen ditudanetatik, 'MP5' aukeratuko dut.

Zuen denbora librean zer egiten duzue normalean?
ANDER: Irakurri, telebista ikusi edo lagunekin denbora pasa.
J. MANUEL: Emaztearekin paseatu. Hori bai, goizean goiz, bazkaria prestatu.

Denbora librea duzuenean elkarrekin egoteko ohitura duzue?
ANDER: Festak direnean edo lehengusua etortzen denean, aitxitxa eta amamaren etxera igotzen naiz. Etxekoak gimnasiora edo fisiora joaten direnean ere, eurekin egoten naiz.
J. MANUEL: Portal berean bizi gara-eta! Eurak 2. pisuan eta gu 3.ean.

TAGLIATELLEAK IZOKIN ETA CHERRY TOMATEAREKIN



OSAGAIAK:

- Tipulina
- Baratxuri alea
- 200gr cherry tomatea
- Albaka
- 200 ml. esne-gaina
- 700 gr. izokina
- 100 ml. ardo zuria
- 500 gr. tagliatelle freskoa
- Olioa
- Gatza









NOLA EGIN:


1. Kazola bat sutan jarri tagliatelleak egosteko behar duten urarekin. Bitartean, tipulina eta baratxuriak brunoise eran zatitu. Izokina ahoan sartzeko moduko kuboetan zatitu. Kazola zapal bati olioa gehitu eta bero dagoenean, izokina frijitu gorritu arte. Gorde.
2. Kazola berberean, baratxuria eta tipula erregosi. Cherryak erditik zatitu. Tipula biguna dagoenean, Cherryak gehitu, erregosi.
3. Ondoren ardo zuria gehitu eta 5 minutuz kozinatu. Ondoren esne-gaina gaineratu eta 4 minutuz egosi. Momentu honetarako, urez dugun kazola irakiten hasita egongo da. Gatzez ondu eta tagliatelleak gehitu, egosi fabrikatzaileak jarritako denboran.
4. Izokina kazolara gehitu eta nahi adina albaka. Tagliatelleak egosiak daudenean, egosteko uraren bi burruntzali izokin kazolara gehitu, eta tagliatelleak xukatu. Tagliatelleak kazolara gehitu, irabiatu integratu arte eta zerbitzatu.

7 DESBERDINTASUNAK




HIZKI-ZOPA






LABIRINTOA



GURUTZEGRAMA




LE-HIAKE-TA

ANIMALIEN ETXERAKO BIDEA!

Kaixo, lagunok! Ahuntzak, behiak, oiloak eta zaldiak zuen laguntza behar dute! Lagunduko al diezue bakoitzari bere etxera iristen? Parte hartu lehiaketan. NOLA? Gure bulegora ekarriz (Urkizu 11) edo email-ez bildaliz: elkartea@etakitto.eus

SARIAK ZUEN ZAIN DAUDE!



6 urte

Karakola eta Barea: gure bihurri parea

Barea eta Karakola, Karakola eta Barea, baratzeko bihurri parearen berri jakin nahi? Zertan ote dabiltza? Istorio hauetan abenturak biziko dituzte batzuetan, kezkak eta sentimenduak azaldu besteetan. Finean, marrazki xelebre eta biziokin jende arruntaren eguneroko egoerak modu sinplean kontatu dizkigu egileak.



8 urte

Lorategiko iratxoa

Bakartxori birziklapena zer den ikasteko tenorea iritsi zaio eskolan. Horretarako, plastikozko poltsa bat eman dio irakasleak. Alabaina, Bakartxo hain dago haserre, ezen, etxerako bidean, plstikozko poltsari egundoko ostikoa eman eta haizea hartzera bidali baitu. Lasitu asmoz joan da etxeko lorategira eta, belar gainean oinutsik dabilela, txintxarri baten soinua entzun du, barre batzuekin batera.



10 urte

Zero ni nintzen

Hona hemen mutiko bat, ustez beldurtia eta zalantzatia, denboraren poderioz ausartagoa eta sendoagoa izango dena, idazlea bera bezala. Bizitzan tarteka egoera gogorrak gertatzen zaizkigu, negar ere egiten dugu, baina askotan indartsuago egiten gaituzte.



BITXIKERIAK

Olagarroek hiru bihotz dituzte: bik odola zakatzetara bidaltzen dute, eta hirugarrenak gainerako gorputzera.

Banana-landarea teknikoki belar erraldoi bat da, ez zuhaitz bat. Bere enbor itxurako egitura hostoen oinarriek osatzen dute.

Erleek dantza egiten dute, mugimendu berezien bidez, beste erleei loreak non dauden adierazten diete, baita norabidea eta distantzia ere.

EGUN BAT ETORKIZUNEAN

EGILEA: **MARA RUIZ LH 6**

Egun batean Ilargi esnatu zen eta zerbait desberdina zela konturatu zen. Bere logela desberdina zegoen, argiekin, eta ahots robotiko batek esnatzeko esaten zion. Leihotik begiratzean konturatu zen kotxeak hegan egiten ari zirela.

Konfundituta, ispiluan begiratu zen eta erloju arraro bat zegoen. Hitz gabe geratu zen erlojuan ipintzen zuena ikustean: “2126. urtea”. Bapatean erlojua zarata egiten hasi zen eta mezu bat atera zen: “Zu zara mundua salbatu ahal duen bakarra”.

Ilargik ez zuen ezer ulertzen. Momentu horretan robot bat leihotik sartu zen, kutxa txiki batekin. Barruan giltza bat eta argazki bat zeuden. Ilargik hasieran ez zekien zein zen argazkikoa, baina buruari buelta batzuk eman ondoren konturatu zen argazkiko pertsona bere aitona zela, zientzialari oso famatua.

Robotak esan zion birus batek jende asko hiltzen zuela eta orduan Ilargik gogoratu zuen bere aitonak antidoto bat zeukala. Kutxa gotor batean eta giltzak zabaldu ahal zuen.

Aitonaren etxe zaharrera joan zen Ilargi eta hor zegoen Kutxa gotorra. Antidotoarekin pertsona asko salbatu ziren eta Ilargi 2026ra bueltatu zen.



Zu bai margolari

Zu bai

Zu bai margolari

Zu bai margolari

Zu bai margolari

Zu bai margolari

Zu bai margolari

Zu bai margolari

